

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA

Pertsonen Kudeaketa

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko ekainaren 28an honako erabaki hauek hartu zituen:

«Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urtarrilaren 26an, Donostiako Udaleko Administrazioen hirurogeita hiru (63) plaza txanda librean eta lehiaketa-oposizio bidez behin betiko betetzeko deialdia onartu zuen (58 plaza modalitate orokorrean eta 5 plaza desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoan). Plaza horiek betetzeko hautaketa-prozesua abian da gaur egun.

Deialdiko plazak enplegu publikoaren eskaintza hauetakoak dira:

– 2017ko urriaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 2017. urteko Lan Eskaintza Publikoa (2017/10/31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 208. zk.): Administrazioen hogeita bi (22) plaza txanda librean betetzeko (20 plaza modalitate orokorrean eta 2 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

– 2018ko azaroaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 2018. urteko Lan Eskaintza Publikoa (2019/01/16ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 11. zk.): Administrazioen hogeita (20) plaza txanda librean betetzeko (19 plaza modalitate orokorrean eta plaza 1 desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko martxoaren 12ko akordioaren bidez, 2018ko Lan Eskaintza Publikoa aldatu zuen (2019/04/02ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 63. zk.). Hala ere, aldaketa horrek ez zuen eraginik izan Administrazioen plazetan.

– 2020ko urriaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 2020. urteko Lan Eskaintza Publikoa (2020/11/12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 217. zk.): Administrazioen hogeita bat (21) plaza txanda librean betetzeko (19 plaza modalitate orokorrean eta 2 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan).

2017., 2018. eta 2020. urteetako Lan Eskaintza Publikoetan sartutako Administrazioen plazak deialdi bateratua ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiengatik egin zen; eta, onartu zenetik, adierazi zen plazak guztizko kopurua (63) handitu egin zitekeela azken kalifikazioak argitaratu aurretik izandako lanpostu hutsen kopuruarekin.

2021eko abenduaren 14an, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen. Bertan, txanda libreko 41 plaza sartzen ziren, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak ezarritako birjarpen-tasa hertsia aplikatuz.

41 plaza horien artean 34 Administrazio plaza zeuden txanda librean betetzeko (32 plaza modalitate orokorrean eta 2 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan). 34 plaza horiek, deitutako 63 plazak bezala, C Sailkapen Taldekoak dira, C1 Azpitaldekoak eta Administrazio Orokorreko Eskalakoak. Era be-

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Gestión de Personas

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, con fecha 28 de junio de 2022, acordó lo siguiente:

«La Junta de Gobierno Local, con fecha 26 de enero de 2021, aprobó la convocatoria para la provisión definitiva por turno libre mediante concurso-oposición de sesenta y tres (63) plazas de Administrativo/a del Ayuntamiento de San Sebastián (58 plazas por la modalidad de acceso general y 5 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad). El proceso selectivo para la provisión de las plazas en cuestión se encuentra actualmente en curso.

Las plazas que se encuentran convocadas se corresponden con las siguientes ofertas de empleo público.

– Oferta de Empleo Público del año 2017 aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 17 de octubre de 2017 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 31/10/2017, n.º 208): veintidós (22) plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (20 plazas por la modalidad de acceso general y 2 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

– Oferta de Empleo Público del año 2018, aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 27 de noviembre de 2018 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 16/01/2019, n.º 11): veinte (20) plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (19 plazas por la modalidad de acceso general y 1 plaza por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

La Oferta de Empleo Público de 2018 fue modificada por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 12 de marzo de 2019 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 02/04/2019, n.º 63); sin embargo, dicha modificación no afectó a las plazas de Administrativo/a.

– Oferta de Empleo Público del año 2020, aprobada por la Junta de Gobierno Local, con fecha 28 de octubre de 2020 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 12/11/2020, núm. 217): veintiún (21) plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (19 plazas por la modalidad de acceso general y 2 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad).

La convocatoria conjunta de las plazas de Administrativo/a incluidas en las Ofertas de Empleo Público de los años 2017, 2018 y 2020 respondía a razones de economía, eficacia y eficiencia; y ya desde su aprobación se señalaba que el número total de plazas (63) podría incrementarse con el de las vacantes producidas con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales.

La Junta de Gobierno Local, con fecha 14 de diciembre de 2021, aprobó la Oferta de Empleo Público del año 2021, que incluía 41 plazas por turno libre en aplicación de la tasa de reposición estricta establecida por la Ley 11/2020, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2021.

Entre esas 41 plazas se encontraban 34 plazas de Administrativo/a para ser cubiertas por turno libre (32 plazas por la modalidad de acceso general y 2 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad). Estas 34 plazas, al igual que las 63 ya convocadas, pertenecen al Grupo de Clasificación C,

rean, guztiek 2. hizkuntza-eskakizuna (B2) dute esleituta, derri-gortasun-data igarota.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 16an onartu zituen oinarri orokorrek 8.2 oinarrian ezartzen dutenez «Deialdiko plaza kopurua handitu egin daiteke hautaketa prozesuan edozein arrazoï dela eta hutsik gera daitezkeen tokien arabera, baldin eta hala xedatzen bada deialdiko oinarri berezietan. Lanpostu handitze hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Bertan, hizkuntza-eskakizuna betetzeko nahitaezko data esleituta duten lanpostuen kopurua jasoko da, eta, edonola ere, azken kalifikazioak argitaratu aurretik adostu eta argitaratu beharko da».

Oinarri orokorrek ezartzen dute plaza kopurua handitzeko baldintza dela deialdiaren oinarri berezietan hala ezartzea. Ildo horretan, administrarien 63 plazak betetzeko abian den deialdiaren oinarri bereziek lehenengo oinarrian honako hau ezartzen dute: «Deialdiko plaza kopurua handitu ahalko da azken kalifikazioak argitaratu baino lehen sortzen diren plaza hutsekin. Hala gertatuz gero, ez da beharrezkoa izango eskaerak aurkezteko beste epe bat irekitzea».

2021. urteko Lan Eskaintza Publikoa onartu eta gero, argitaratu da 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa. Lege horrek administrarien 34 plazen egoera banaka aztertzea eskatzen du, egonkortzeko hautaketa-prozesu espezifikoaren bidez deialdia egitea eskatzen duen egoeraren batean ote dagoen zehazteko.

Azterketa hori administrazio-espeditentean jasota dago, Pertsonak Kudeatzeko zuzendariak 2022ko ekainaren 14an emandako txostenaren bidez. Plaza huts bakoitzaren okupazio-egoeraren xehetasuna eta justifikazioa txostenarekin batera doan eranskinean jaso da.

Txosten horren arabera, 34 plazetako bakar batek ere ez ditu betetzen 20/2021 Legearen 2.1 artikuluko baldintzak egonkortze-tasa gehigarrian sartzeko; halaber, plaza horietako bakar bat ere ez dago 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietan ezarritakoaren eraginpean.

Dagoeneko deitutako 63 plazei dagokienez, hautaketa-prozesua merezimenduen balorazioaren zain dagoen lehiaketa-fasean dago, oposizio-faseko ariketak amaitu ondoren. Deialdian 5.000 hautagai baino gehiago inskribatu ziren; horietatik 2.568k lehenengo ariketa egin zuten eta 959k oposizio-faseko kanporatze-ariketa guztiak gaingitu zituzte. Beraz, agerikoa da martxan dagoen prozesua baliatu behar dela enplegu publikoaren eskaintzan onartutako Administrari plaza huts guztiak betetzeko, ahalgin ekonomiko eta kudeaketa handia eskatzen baitu horrelako deialdi batek Udalarentzat.

Kontuan hartuta, azaldu den bezala, oinarri orokorrek eta oinarri espezifikoek plaza-kopurua handitzeko aukera ezartzen dutela, hautaketa-prozesua ez dela iritsi azken kalifikazioak argitaratzera eta 34 plazetako bakar bat ere ezin dela bete 20/2021 Legeak ezarritako egonkortzeko hautaketa-sistemen bidez; arrazoizkoa da deialdia zabaltzea, aukera hori bat datorrelako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia printzipioekin. Gainera, egungo testuinguruan, martxan dagoen deialdia aprobetxatzea aukerarik eraginkorrena da egonkortzeko hautaketa-prozesuei ez dagozkien 34 plaza horietan behin-behinekotasun egoerak luza ez daitezen. Horrela egin ezean, beste deialdi arrunt bat jarri beharko litzaiteke martxan, eta milaka izangaik parte hartuko lukete berriro.

Subgrupo C1, Escala de Administración General. Asimismo, todas ellas tiene asignado el perfil lingüístico 2 (B2) con fecha de preceptividad vencida.

Las bases generales, que fueron aprobadas por la Junta de Gobierno Local con fecha 16 de enero de 2020, establecen en su base 8.2 que «El número de plazas convocadas podrá ser ampliado en función de las vacantes que se produzcan por cualquier causa durante el desarrollo del proceso selectivo si así lo establecen las bases específicas de la convocatoria. Dicha ampliación se hará pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web, haciendo constar el número de plazas que tengan asignada fecha de preceptividad en el cumplimiento del perfil lingüístico y, en todo caso, deberá ser acordada y publicada con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales».

Las bases generales condicionan la posibilidad de ampliar el número de plazas a que lo establezcan las bases específicas de la convocatoria. En este sentido, las bases específicas de la convocatoria que se encuentra en curso para cubrir las 63 plazas de Administrativo/a establecen en su base primera que «El número de plazas convocadas podrá incrementarse con el de las vacantes que se produzcan con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales. En tal caso no será preceptiva la apertura de un nuevo plazo de presentación de solicitudes».

Con posterioridad a la aprobación de la Oferta de Empleo Público del año 2021 se ha publicado la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público. Dicha Ley exige analizar de forma individualizada la situación de las 34 plazas de Administrativo/a para determinar si en alguna concurre alguna circunstancia que exija su convocatoria mediante procesos selectivos específicos de estabilización.

Dicho análisis consta en el expediente administrativo mediante informe, de fecha 14 de junio de 2022, emitido por la Directora de Gestión de Personas; y al que se adjunta anexo con el «detalle pormenorizado y justificativo de la situación de ocupación de cada una de las vacantes».

Concluye el citado informe que ninguna de las 34 plazas reúne los requisitos del artículo 2.1 de la Ley 20/2021 para ser incluidas en la tasa adicional de estabilización; así como que ninguna de ellas está afectada por lo establecido en las disposiciones adicionales 6.ª y 8.ª de la Ley 20/2021.

En lo que respecta a las 63 plazas ya convocadas, el proceso selectivo se encuentra en la fase de concurso pendiente de la valoración de méritos, una vez finalizados los ejercicios de la fase de oposición. En la convocatoria se inscribieron más de 5.000 aspirantes, de los que 2.568 realizaron el primer ejercicio y 959 han superado todos los ejercicios eliminatorios de la fase de oposición. Resulta, por lo tanto, evidente la necesidad de aprovechar el proceso en marcha para cubrir todas las vacantes de Administrativo/a aprobadas en oferta de empleo público, dado el importante esfuerzo económico y de gestión que supone una convocatoria de estas características para el Ayuntamiento.

Teniendo en cuenta, como se ha expuesto, que las bases generales y las bases específicas establecen la posibilidad de ampliar el número de plazas, que el proceso selectivo no ha llegado a la publicación de las calificaciones finales y que ninguna de las 34 plazas es susceptible de ser cubierta por los sistemas selectivos de estabilización establecidos por la citada Ley 20/2021; resulta razonable ampliar la convocatoria por ser la opción más acorde con los principios de eficacia, eficiencia y economía. Además, en el contexto actual, aprovechar la convocatoria que se encuentra en marcha supone la opción más efectiva para evitar que se alarguen las situaciones de temporalidad en estas 34 plazas no susceptibles de procesos selectivos de estabilización. De no hacerlo así, se debería poner en marcha una nueva convocatoria ordinaria a la que volverían a concurrir miles de aspirantes.

Horregatik guztiarengatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki hartzea proposatzen diogu:

ERABAKIAK

Lehenengoa. 2021eko urtarrilaren 26an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 63 Administrazio plazen deialdia handitzea, 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoan sartutako 34 Administrazio plazekin; guztira 97 izango dira txanda librean beteko diren Administrazio plazak (90 plaza modalitate orokorrean eta 7 plaza desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan). 97 plaza 2. hizkuntza-eskakizuna (B2) esleitu zaie, derrigortasun-data igarota.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea honako ebazpen hau.»

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtso-rik aurkezterik harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina izan arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko ekainaren 29a.—M.^a Isabel Iñiguez Azurmendi, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (4362)

Por cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes acuerdos.

ACUERDOS

Primero. Ampliar la convocatoria de 63 plazas de Administrativo/a aprobada por la Junta de Gobierno Local con fecha 26 de enero de 2021, con las 34 plazas de Administrativo/a incluidas en la Oferta de Empleo Público del año 2021; siendo en total 97 las plazas de Administrativo/a a cubrir por turno libre (90 plazas por la modalidad de acceso general y 7 plazas por el cupo de reserva para personas con discapacidad). Las 97 plazas tienen asignado el perfil lingüístico 2 (B2) con fecha de preceptividad vencida.

Segundo. Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 29 de junio de 2022.—La directora de Gestión de Personas, M.^a Isabel Iñiguez Azurmendi. (4362)